

Komikia

Pololoak 3

Trilogia probokagarriaren amaiera apala

Guztioi pasa zaigu. Zerbaiten esperoan denbora asko ematen dugunean, dastatu ostean zapore gazi-goza lagatzen digu. Halako zerbait gertatu zait Patxi Gallegoren *Pololoak* trilogia iraultzaileari amaiera eman dion komikiarekin.

JON TORNER

TAMAINA HONETAKO trilogia kaleratzeak zein sakrifizio eskatzen duen imajina dezakegu. Helduentzako komikia euskaraz. Ausartzea ere! 600 orrialde bete dituen bost urteko lan eskerga latza. Eta imajinatzen ez bagenuen, Patxi Gallegok (Errenteria, 1973) berak esan digu zailtasun guztiei aurre egiteko “espartano batek bezala” nola borrokatu behar izan duen, hirugarren liburuaren amaiera aldera hitza hartzean: “Galerak, tentazioak, ahuleziak, oztopoak, komentario ergel eta mingarriak...”.

Egia horiek kikildu egiten dute komikia kritikazera doan kazetaria, ez duelako ergeltzat har dezaten nahi, eta are gutxiago egilea mintu. Horregatik jo du Internetera, *Pololoak 3. Atxeritoko balada* (*The ballad of Atxerito*) liburuari buruzko bere iritzia sendotuko duten aipuen bila. Asmoak putz. Gehiago beldurtu da, Igor Leturiak bere blogean idatzi baitu hirugarren komikian zirkulua “maisutasunez” itxi duela egileak, “obra borobila” utziaz.

Bigarren partearekin bat nator erabat, osotasunean hartuta trilogia borobila dela uste dut, aitzindari eta iraultzailea, plazer bat. Hirugarren komikiko orriak pasa ahala, ordea, Xabinaitor super-heroia aurreneko bi liburuetan barrenak astindu zizkigun indarra galtzen joan dela iruditu zait, istorioa luzeegia egin zaiola.

Komiki pertsonalagoa (-egia?)

Patxi Gallegok 2004an plazaratu zuen *Pololoak I. Poxpoliñen lurrina* komikia, eta 2006an *Pololoak II. Poxpoliñaren bahiketa*. Hirugarrena da potoloena (240 orrialde), baita oso osorik koloretan dagoen bakarra ere. Ilustrazioei

dena den geroago helduko diet, mamiari kosk egin ostean.

Berria egunkariak egindako elkarrizketa batean (2010-01-13), Gallegok zioen aurreneko biak baino “autobiografikoagoa eta pertsonalagoa” dela hirugarren liburua. Igor Leturiaren hitzetan, trilogiaren sorkuntza prozesuari eta egilearen eta pertsonaiaren bizitzen arteko antzekotasunei (“ezberdintasunei, barkatu”) buruz hitz eginez, metaliteratura (“metakomiki?”) gisako saiakera zoragarria egin du egileak.

Nire iritziz, bi bizitzen arteko paralelismoak erre du diskurtsoa. 1980 hamarkadako kontuak dakartza Gallegok: gazte denborako idoloak, musika, janzkera, politika, kirola... eta emakumeak, noski. Bale bale, eta sexu esplizitua, noski. Estreinako komikiarekin kolpe gozagarria jaso genuen, analisisien originaltasun,

zorroztasun eta ironiagatik, berdin bigarrenarekin, baina trilogia itxi duen liburuarekin sentitu

du gauza asko jada irakurriak nituela, hasieran apurtzaile zirenak topiko

bilakatu direla. Aurreneko komikietan,

gainera, analisi gaizto horiek pertsonaien ahotatik ateratzen ziren. Freskotasuna

ematen zuen horrek, bakoitzaren ikuspuntu eta hizkeragatik –euskalkiak abileziaz erabiltzen ditu Gallegok–. Hirugarrenean, ordea, komikigileak berak kontatzen du lehen pertsonaiek ziotena, eta istorioak tonu uniformeagoa hartzen du. Une batzuetan sentsazioa izan dut narrazioak komikitik kanpo ateratzen ninduela,

fikziozko istorioa baino, autobiografia bat irakurtzen ari nintzela.

Asmatutako istorioa –komikia– dela gogorazten



diguten erreferentziek sentipen hori indartu egin dezakete. Bi adibide ditut gogoan. Aurrena (108. orrialdean), hainbat ibilgailuren arteko istripua eragin ostean Xabinatoirrek neska bati zera esaten dionean: “Lasai, kamioiek ez dute eztanda egiten, hori pelikuletan bakarrik gertatzen da, Felix Linaresi entzun nion behin. Klaro, baña komikietan ere posible da gertatzea (...)”. Bigarrena (205-210 orrialdeak), egileak hasiera batean liburuaren hari nagusiak zein izan behar zuen azaltzen digunean. Komikietan kontatu eta marraztutakoa justifikatzeko arrazoirik ez dago –koherentziari eutsiz gero behintzat–, eta aipu horiek istorioan murgildurik dagoen irakurleari traba egin diezaiokete. Metaliteratura –metakomikia– horixe dela esango dit norbaitek. Tira, baliteke, eta idazleak –edo bere kontzientziak– hitza hartzen duen zuri-beltzeko dozena erdi orrialdeetan sorkuntza-prozesuaren nondik-norakoak irakurtzea aberasgarria da, baina ez dakit narrazioari mesede egiten ote dion. Zenbat buru, hainbat aburu, pentsatzen dut.

Ilustrazio zoragarriak

Patxi Gallegok akuarelaz eginiko marrazkiak benetan ederrak dira. Trilogiaren aurreneko liburuan zuri-beltza zen nagusi, bigarrenaren kolorearen erabilera handiagoa zen eta hirugarrena, dozena erdi orrialde salbu, koloretan dago erabat. Ilustrazioek dotoreziaz jantzi dute istorioa: garai bateko komikien tankera duen Jeremiah Johnson-ekin egindako konparazioa, Luis Buñuelen *Belle de jour* filma oinarri duen pasarte, lehen aipatutako 205-210 orrialdeetako “plano ikusgarriak”... nabarmentzekoa da Gallegoren estilo aniztasuna. Pertsonaien irudiak, keinu eta mugimenduak, istorioa bezala, barregarriak dira oso. “Baina” bakarra jarriko nuke: ageri diren emakume gehien figura antzekoa izatea; azaleko zazpi neskak horren adibide.

Trilogiako hirugarren liburuan komikigileak berak kontatzen du lehen pertsonaiek ziotena, eta istorioak tonu uniformeagoa hartzen du

Euskal Herriko paisaia fideltasunez marraztu du Gallegok. Hirugarren komikia, adibidez, euskaldun askok ezagutzen duten Linzako aterpe inguruan hasten da. Han dago liburuari izena ematen dion Atxerito mendia. Pirinioak, Bilbo, Donostia... euskaldunontzat erreferente diren parajeak dira Xabinaitarren balentrien lekuko. Goraipatu beharreko ezaugarria da hori: helduentzako euskarazko komikia da *Pololoak*, baita euskaldunon ikuspuntutik egindakoa ere, eta ez soilik kokapenagatik: Euskal Herriko poxpoliñak salbatzea helburu duen super-heroi zakil-tentea, haren atzetik dabilzan ertzain eta guardia zibilak, mutil euskaldunen ligatu-mozkurtu-dantzatzeko abilezia, euskal tradizioko musikarien kameoak, euskalkien erabilera... *Vasco* batek nekez harrapatuko ditu ñabardura guztiak.

Eta orain zer?

Galdera horixe egin du Igor Leturiak bere blogean. “Basamortuan oasia soilik izan da hau? (...) Aurrekoan esan nuen lehenengo aldia zela euskaraz horrelako zerbait egiten zena eta argitaletxe handi batek [Elkarrek] horrelako apustua egitea gauza ona zela euskal komikigintzarako, baina ardura handia ere badela, emaitzaren baitan egon baitaiteke horrelakoak egiten jarraitzea”. Emaitzak onak izan dira, irakurleen –eta kritikaren– partetik bereziki, baita, ziurrenik, salmentei dagokienez ere. Ahoz aho, eskuz esku ibili dira hiru *Pololoak*. Komikia irakurtzeko ohiturarik ez zuen jende ugari erakarri dituzte, eta Gorringo taldeak antzerkera eraman ditu “EGAkoko titulua duen super-heroi bakarraren” balentriak. Pilota argitaletxeen teitlutan dagoela dio Leturiak. Bat nator berarekin, euren babesik gabe ezinezkoa litzatekeelako hain lan mardula egitea. ■

argia.com Artikulu honetan aipatzen diren iturrietara loturak aurkituko dituzu ARGIAren edizio digitalean.



**UROLA
JATETXEA**

FERMIN CALBETON, 20 • 20003 DONOSTIA
Telf: 943423424 • Fax: 943 424 424 • urola@restauranteurola.com
www.restauranteurola.com